

ARTIUM MUSEOA
Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa
www.artium.eus

Bigarren bidea

Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian

**Euskal emakume artisten dokumentazio zentroa.
Praktika artistiko eta artearen teoria feministak**



Amets egoera loak artuta, 1982. Juana Cima

ARTIUM MUSEOAK *BIGARREN BIDEA* AURKEZTU DU BILDUMAREN *ZERU BAT, HAMAIKA BIDE* ERAKUSKETAREN ESPARRUAN, ETA, GAINERA, EUSKAL EMAKUME ARTISTEN DOKUMENTAZIO ZENTROA

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, egitarau berezia antolatu du Artiumek, emakumeek praktika artistikoan duten presentziaren auziarekin loturiko hainbat alderdiri buruz gogoeta sustatzeko; emakumeek artean duten presentzia baita, hain zuzen ere, Museoaren proiektuaren zeharlerroetako bat, haren lan eta ikerketa-esparru guztiak ukitzen dituena. Hala, *Bigarren bidea* irekiko zaio publikoari. Bildumari buruzko *Zeru bat, hamaika bide* erakusketaren baitan antolatuko den ibilbide sortako berria da, eta artearen eta pentsamendu feministaren arteko loturak izango ditu oinarri. Gainera, Artium Museoak Euskal emakume artisten, eta praktika artistiko eta arte teoria feministak dokumentazio zentroa jarriko du abian: mugimendu feministari loturiko praktika artistikoei buruzko ikerketaren eta hainbat belaunalditako euskal emakume artisten ekoizpenaren lagungarri izango diren iturri bibliografikoak eta dokumentazioa biltzeko, kontserbatzeko eta hedatzeko gune espezializatu bat.

Artium, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, 2002an inauguratu zen, Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gasteizko Udalaren eta Eusko Legebiltzarraren funtsez osatutako bilduma batean oinarrituta. Funtz horiei museoak sortu zenetik erosi dituen obrak gehituz joan zaizkie. 2018an, 2.400 artelan inguru biltzen dituen bildumaren azterketa bat egin zen, eta funtsetan artista emakume gutxi zeudela egiaztatu zen (% 20,8). Harrezkero, herritar guztiei zerbitzurik onena eskaintzeaz arduratzen den erakunde publikoa den aldetik eta euskal errealitatea zein nazioarteko museo-korrante berriak aintzat hartuta, Museoak ildo estrategiko bat ezarri du, artistak artearen historian (edo historietan) sartzearen alde egiten duena eta haien lanak ondarearen funtsezko zati direla nabarmentzen duena.

Bigarren Bidea-ren, Bildumaren ibilbidearen, erako ekimenak bultzatzen dituen lan-ildo berri honen garapenean, martxoaren 8ko ospakizunaren esparruan inauguratzen denean, arte garaikidearen inguruko eztabaiden garapena bere testuinguruan ulertzeko funtsezkoak diren emakume artisten gordailuak eta erosketak sartu dira Museoaren funtsen erakusketan. Ibilbide horretan jarri da ikusgai lehen aldiz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2020an erakunde honen, Tabakalera KGNZren eta Bilboko Arte Ederren Museoaren artean partekatutako bilduma batera bideratutako funtsekin erositako artelan multzo bat, baita Arabako Foru Aldundiak eskuratutako obrak ere. Besteak beste, Azucena Vieites, Estibaliz Sádaba, Ana Isabel Roman eta Lucía Onzaín artisten lanak izango dira ikusgai Artiumeko aretoetan. Juana Cima artistaren horma-lan batek espazio zentral bat hartzen du erakusketan, Gasteizko Udalaren bildumatik datorren eta 1980an Pintura eta Eskulturako IV Bienalean saritutako.

Ibilbide berri horrekin batera, martxoaren 5ean **Euskal Emakume Artisten Dokumentazio Zentroa (Praktika artistiko eta artearen teoria feministak)** aurkeztuko da, Museoko Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari atxikitako gune espezializatu. Proiektu horrek Museoaren ildo estrategiko bat indartzen du, parekotasunetik abiatuta lan egitea helburu duena. Zentro hori, gainera, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren bilduman dauden Euskal Herriko emakume artisten lanen arxibo dokumentala da, eta baita erakusketa-programen bidez elkarrizketak sortzen diren emakume artistena ere.

Horrela, Dokumentazio Zentroak eginkizun bikoitza betetzen du: batetik, museoak bere funts eta arxiboetan emakume artistak sartuz bilduma osatzeko egindako aurrerapenak erakusten ditu, eta, bestetik, testuinguruko artisten lanak eta irudiak ezagutzeko eta aztertzeko aukera ematen die komunitate artistikoari eta herritar guztiei.

Bigarren bidea

Bere jatorri ilustratutik hasita, feminismoa internazionalismoa izan da beti. 1975ean, feminismoaren Hirugarren Olatu Handia, hirurogeiko hamarkadatik aurrera Atlantikoaren bi aldeetan garatuz zihoana, mugarri batera iritsi zen Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatzearekin eta Nazio Batuen Erakundeak babestutako Emakumeari buruzko lehen Mundu Konferentzia Mexikon ospatzearekin. Olatu horrek berak, lehen aldiz artearen eremura ere iritsiz, praktika artistikoa eta teorikoa sortu zituen artearen eta feminismoaren arteko elkargunean, oihartzuna nazioartera zabalduz.

Mugimendu antifrankistekin batera, mugimendu feminista hasiberria, artistak ere partaide zituena, emakumeen diskriminazioaren, zapalkuntzaren eta esplotazioaren aurka hasi zen lanean Euskal Herrian. Hala, 1977an, Euskal Herriko Emakumeen Lehen Jardunaldiak egin ziren Leioan, eta mugimendu feminista, emakume artistak arte-erakundeetatik baztertzen zirelako kezkatuta, erakusketak antolatzen hasi zen, esate baterako, *Emakumeok Gaur* Bilbon (1981, 1983, 1989). Erakusketa horietan parte hartu zuten artean Juana Cima, Itziar Elejalde eta Juncal Ballestín aipa daitezke; haiek artearen bigarren bide hori jorratzen hasi ziren, iruditeria berriak sortuz eta artearen erakundeak zalantzan jarriz. Artista horiek ekoitzi zuten, era berean, mugimenduaren ikonografiaren zati handi bat ere: kartelak, liburuxkak, eranskailuak, etab.

Zeru bat, hamaika bidek eszenatoki horri erreparatzen dio *Bigarren Bidearekin*, artelanetan eta egileetan zeharko ibilbide bat, Garazi Ansa komisariatutako *Hemen dira hutsunean igeri egindakoak* laneko hurbilketaren ildoari jarraituz. Museoko bildumaren erakusketaren esparruan, ibilbide berri hori marrazten duten lanen artean erosketa eta gordailu berriak daude, hala nola Juana Cima, Gema Intxausti, Lucía Onzain, Elena Mendizabal, Estibaliz Sádaba eta Azucena Vieites artistenak, esate baterako. Haien izenak erakusketan aurretik bazeuden beste batzuei gehitu zaizkie —Ana Laura Aláez, Miren Arenzana, Esther Ferrer, María Luisa Fernández, Cristina Iglesias, Gabriela Kraviez eta Itziar Okariz, besteak beste—.

Euskal emakume artisten dokumentazio zentroa

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren Bildumak hogeigarren mendeko lanak biltzen ditu baina, batez ere, 1950eko hamarkadatik gaur arte ekoizitakoak. Bere museo-funtzen oraintsuko aurkezpenek hirurogeita hamarreko hamarkadan hasitako praktika artistikoak azpimarratzen dituzte, eta kronologia hori bat dator artista emakumeak eta haien ekoizpenak maila globalean artearen eztabaidetan agertzearekin.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran hasiko zaio artearen sistemari zuzenean galdetzen emakume artistak haren agertokietan ez egoteari buruz, 1971n Linda Nochlin historialariak egindako galdera ezagunaren bidez: «Zergatik ez da emakume artista handirik izan?». Harrezkero, artearen arloa goitik behera aldatu da, eta, gai hori *Art News* aldizkariaren orrietan argitaratu eta berrogeita hamar urtera, posible da gelditu eta egindako bideari nahiz egiteko dagoenari buruz hausnartzea.

Artium Museoaren Dokumentazio Zentroak praktika artistikoen eta ikuspegi feministen artean sortzen diren harreman emankorretan interesa duten artista eta publikoentzako plataforma eta topagune bihurtu nahi du.

Espazio espezializatu horren helburuen artean daude, besteak beste, ezagutza-arlo horiei buruz eskuragarri dagoen informazioa identifikatzea, biltzea, antolatzea eta ikertzaileen esku jartzea, eta baita museoko programei, bildumari eta erakusketei lotutako artisten eta pentsalarien dokumentazioa eta artxiboak gordetzea eta biltzea ere.

Gainera, bere ondare- eta zientzia-xedeari dagokionez, Dokumentazio Zentroak zenbait ekintza sustatuko ditu, besteak beste, Dokumentazio Zentroa eta Bilduma lotuko dituen erosketa-programa bat abian jartzea, euskal artista emakumeei buruzko tesauro bat sortzea eta artista, idazle eta pentsalari batzuek eta besteek gomendatutako irakurketa-ildo bat garatzea. Era berean, hainbat emakume artistari elkarrizketak egingo zaizkie bideoan, eta espazio honetan egongo dira, nahi duenak kontsultatzeko.